


Gizarte Hezkuntza Gradua

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

DONOSTIA | SAN SEBASTIAN



II. MODULUA

HEZKUNTZA LANBIDEAK

Moduluko gida

AURKIBIDEA

MODULUAN LANDU BEHARREKO KONPETENTZIAK	3
GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK II. MODULURAKO	3
GARAPEN IRAUNKORRERAKO GAITASUNAK	4
II. MODULUAREN IRAKASGAIK	6
DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)	6
EGIN BEHARREKO LANA	7
METODOLOGIA	7
IKASGAIEN EKARPENA DILAN-ARI	7
DILAN-A BURUTZEKO PROZEDURA	10
EGUTEGIA	11
TXOSTENAREN EGITURA	12
MODULUAREN JARDUERA DIZIPLINARTEKOAREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK	13
ERANSKINA	14

MODULUAN LANDU BEHARREKO KOMPETENTZIAK

1. Gizarte-, hezkuntza esku-hartzeen eta horien jarduera profesionaleko esparruaren oinarri pedagogikoak eta arauemaileak ezagutzea eta ulertzea, nazioarteko ikuspuntutik.
2. Pedagogoa eta hezitzailearen esanahia eta ezaugarri nagusiak zehaztea, gaur egungo munduko hezkuntza-lanbideekin lotuta.
3. Hezkuntza-iritzia ekoiztea, printzipio etiko eta deontologikoetan oinarritua, eta giza eskubideei, genero-ikuspegiari eta profesionalaren erantzukizunari lotuta.
4. Komunikazioaren oinarriko elementuak identifikatzea taldeen testuinguruan; hartara, hezkuntza-harreman egokia ezartzeko eta ikasketa-dinamikan bertan txertatutako hezkuntza-harremana ezartzeko, garapen pertsonalari eta taldekoari zuzendutakoa.
5. Jendaurrean, ahoz, gizarte eta hezkuntza eremuko gaiei buruzko ideiak, argumentuak eta abar komunikatzeko gai izatea, baliabide didaktikoetan oinarrituta.
6. Txostenak behar bezala arrazoituta idaztea eta horretarako ezarritako irizpide formalak erabiltzea.
7. Ikasketako jarduerak eta lanak egiteko jarrera positiboa izatea.
8. Lan-taldeetan modu arduratsuan eta etikoan lan egitea, lan-taldeen ahalmena azpimarratuz eta zailtasunak hautematea eta ebaztea nabarmenduz.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK II. MODULURAKO

1. Pobrezia desagertzea.
3. Osasuna eta ongizatea.
4. Kalitatezko hezkuntza.
5. Genero-berdintasuna.
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.
10. Desberdintasunak gutxitzea.
11. Hiri eta komunitate iraunkorrak.
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.
16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak.
17. Helburuak lortzeko aliantzak.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO GAITASUNAK

SOST 1- Ezagutzaren kontestualizazio kritikoa, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arazoekin, tokiko arazoekin eta/edo arazo globalekin loturak ezarriz.

SOST 2- Baliabideen erabilera iraunkorra eta natura- eta gizarte-ingurunearen gaineko inpaktu negatiboen prebentzioa.

SOST 3- Iraunkortasuna sustatzen duten prozesu komunitarioetan parte hartzea.

SOST 4- Iraunkortasunaren balioekin lotutako printzipio etikoak aplikatzea portaera pertsonaletan eta profesioaletan.

1. Ikuspegi historikoa eta egungoa du, eta ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-arazoen izaera sistemikoa ulertzen du, bai eta horien arteko loturak eta etorkizuneko erronkak ere, tokian-tokian zein ikuspegi globalean.

Jakitea

C1.HO.1.2. Tokiko nahiz mundu osoko gizarte-, ekonomia- eta/edo ingurumen-arazoetan inplikaturako kausa, ondorio eta subjektu nagusiak ezagutzen ditu.

C1.HO.1.3. Arazo horietarako proposaturako konponbideak ezagutzen ditu (adibidez, 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuak, IPCC txostenak).

Nola jakin

C1.HO.2.1. Iraunkortasunaren dimentsioei buruzko gogoeta kritikoa egiten du bere lanbide-eremuarekin lotutako egoera baten azterketan.

C1.HO.2.2. Gizarte- eta ingurumen-arazoen konplexutasuna eta horien konponbideak ulertzen eta aztertzen ditu (nekazaritza iraunkorra, berdintasun-politikak, lan duina, energia-eraginkortasuna eta -nahikotasuna, ekonomia iraunkorra, gobernantza parte-hartzailea...).

2. Gai da bere lanbide-jarduerak ingurumenean, gizartean eta ekonomian duen eragina detektatu eta aztertzeko, bai eta jarduera iraunkorrak proposatu, diseinatu, antolatu eta gauzatzeko ere.

Jakitea

C2.HO.1.1. Oinarrizko ezagutzak ditu hezkuntza-jarduerak gizartean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen eraginak identifikatzeko.

C2.HO.1.5. Bere lanbide-eremuko proiektuetan justizia soziala baloratzeko irizpideak ezagutzen ditu (adibidez, ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.).

Nola jakin

C2.HO.2.1. Badaki kritikoki baloratzen hezkuntza-jarduerak gizartean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen eragin negatiboak.

C2.HO.2.2. Planteaturako arazo baten aurrean, badaki hainbat hezkuntza-proposamen aztertzen eta ebaluatzen eta jasangarriena erabakitzen.

C2.HO.2.4. Badaki bere lanbide-eremuko proiektuetan gizarte-inpaktua baloratzeko irizpideak eta tresnak erabiltzen (adibidez, ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.).

Egiten erakutsi

C2.HO.3.5. Bere proiektuetan kontuan hartzen ditu eragin soziala baloratzeko irizpideak eta tresnak (adibidez, ekitatea, inklusioa, giza eskubideak, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, osasuna, ustelkeriaren aurkako borroka, etab.).

3. Gai dira prozesu komunitarioetan parte hartzeko, herritartasun globalaren ikuspegitik, eta beren esparru profesionaletik diziplinarteko proiektuetan lan egiteko, gizartea trantsizio iraunkorretara bideratzeko.

Jakitea

C3.HO.1.1. Iraunkortasunarekiko partaidetza eta konpromisoa sustatzen duten hezkuntza-proiektu, -programa eta -sare komunitarioak ezagutzen ditu.

C3.HO.1.2. Iraunkortasun-proiektu batean parte hartzen duten subjektuen lankidetzaren sustatzeko teknikak eta tresnak ezagutzen ditu.

Frogatu eta egin

C3.HO.3.2. Iraunkortasuneko proiektu edo erronka batean, diziplinarteko taldeetan lankidetzaren sustatzeko teknikak eta tresnak erabiltzeko gai da.

4. Jasangarritasunaren printzipio etikoen arabera eragiten du, bai arlo pertsonalean, bai profesionalean (adibidez, kalteen prebentzioa, erantzukizuna oraingo eta etorkizuneko belaunaldien aurrean, giza eskubide sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak).

Jakitea

C4.HO.1.1. Lanbide-eremuan iraunkortasunarekin lotutako arazo etikoak ezagutzen ditu (adibidez, desberdintasuna, kontsumismoa, diskriminazioa...).

C4.HO.1.2. Lanbide-eremuan iraunkortasuna oinarritzen duten printzipio etikoak ezagutzen ditu.

C4.HO.1.3. Ezagutzen ditu gizarte-konpromisoaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren kontzeptuak, aukerak eta mugak.

C4.HO.1.4. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza (GIH) oinarritzko eskubidetzat jotzen du mundu ekologikoagoa, bidezkoagoa eta baketsuagoa lortzeko.

Egiten jakitea

C4.HO.2.1. Iraunkortasunaren printzipio etikoek bere esparru profesionalean dituzten inplikazioak identifikatzeko eta kritikoki balioztatzeko gai da.

Frogatu eta egin

C4.HO.3.1. Lanbidean jarduteko gai da, iraunkortasunaren printzipio etikoak kontuan hartuta.

II. MODULUAREN IRAKASGAIAK

IRASGAIA	IRAKASLEA	PROGRAMAREN LINKA
Hezkuntza Komunikazioa eta Harremanak	AINGERU GUTIERREZ-CABELLO	Sartu hemendik
Giza Eskubideak eta Gizarte eta Hezkuntza Politikak	AMAIA AGIRRE	Sartu hemendik
Identitate eta Garapen Profesionala	VANESA LANCHÁ	Sartu hemendik
	GORETTI ORBEA	
Hezkuntza Leheria eta Nazioarteko Ikuspegia	AINZANE RODRIGUEZ	Sartu hemendik
Pedagogia: Teoria eta Hezkuntza Erakundeak	ESTI AMENABARRO	Sartu hemendik
	ANA EIZAGIRRE	

DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

Lehenengo moduluko lanei jarraipena eman nahian DILAN-ren arabera antolatzen diren Gizarte Hezkuntza eta Pedagogia II. Moduluko lan praktikoen koordinazioa aipatu Moduluan aritzen diren irakasleen artean burutuko da.

Europar hezkuntzaren birmoldaketarekin batera, graduetako lehenengo ikasturtean, hala Gizarte Hezkuntzan nola Pedagogia eremuan lan egiteko prestatu behar direnentzat arlo haietariko gako orokorrak eskaintzeaz gain, esparru haiei dagozkien errealitatearen funtsezko ezaguerak eta hezkuntza testuinguru haietan lan egiteko behar diren gaitasunetan sakontzea nahi da.

Horrela, galderetan oinarritutako ikaskuntza partekatua eta praktikari eginiko ikerketaren bidezko ezaguera landuko dugu. Modulu honekin, bada, hezkuntza arloan ariko diren langileei zuzendutako lan-aurreko praktikak eta beharrezko ezagutzak eskuratzea ahalbidetu nahi da.

Horretarako, bada, DILANaren bidez sortutako hausnarketan ikasketa kritikoa bezain gogoetatzailea ere bultzatuko da, **egun suertatzen ari diren gizarte aldaketei (kulturan, ekonomian edota legedian) aurre egin ahal izateko gauza izango dena.**

Bi kasutan DILAN-k salbuetsita daude:; bata; modulu berean 3 irakasgai baino gutxiagotan matrikulatuta izanik; bestea, 3 irakasgai edo gehiagotan azken froga eskatzen duten ikasleek, EZ dute DILANa egin beharko (ikus eranskina). Hala ere, ebaluazio jarrairi uko egiten dieten ikasleek ere aukera izango dute, nahi izanez gero, DILAN-a taldean eta modu interdiziplinarrean egiteko.

DILAN-a egiten ez duen ikasleak irakasgai bakoitzaren azken froga horretan, irakasleak aukeratutako frogak, testak, azterketa mota, aurkezpenak edo/eta praktikak egin beharko ditu, irakasgai eta moduluan eskuratu behar diren edukien ezagutza, ikaskuntza emaitzak eta gaitasunak bermatzeko, DILAN-ean lantzen diren gaitasun horiek ebaluatuz izan daitezten.

1. Irakasgaien nota izateko DILAN-a egin behar da.
2. DILAN-eko nota ikasturte bateko bi deialdietan mantentzen da baina ez da hurrengo urterako nota gordetzen edo mantentzen.

EGIN BEHARREKO LANA

Bigarren Moduluaren Jarduera Diziplinartekoan zera egin beharko da, txosten idatzia analitikoa. Bertan, hezkuntza arloko profesionalen esperientzia azalduko da testuingurua kontutan izanik eta moduluko bost gaien ekarpenak barneratuz..

Lanak galdera bati erantzun behar dio, argudiatuz betiere. II Moduluko galdera honako hau da:

GURE TESTUINGURUAN HEZKUNTZA ARLOKO
PROFESIONALEK NOLA BIZI, PENTSATU ETA LAN EGITEN
DUTE?

METODOLOGIA

Galdera honi erantzuteko hezkuntza arloan lanean ari diren bi hezkuntzako profesionali elkarrizketa sakona egingo zaie eta hau osatuko da beste iturrietatik jasotako informazioarekin (Bibliografia, Web-ak, etab).

IKASGAIEN EKARPENA DILAN-ARI

Hezkuntza Legedia eta Nazioarteko Ikuspegia

Ikasgai honetatik modu honetara elikatuko dugu DILAN-a, azpimarratuz estatuko, autonomietako eta nazioarteko hezkuntza legediek eta baita nazioarteko erakundeen ekarpenek hezitzailearen garapen profesionalean izan duten garrantzia. Proiektuan zehar ezagutu eta aztertuko dugu:

- Nola bizi izan duten arloko profesionalak hezkuntza legedian egon diren aldaketak eta zer eragin izan duen hauen eguneroko lanean.
- Nazioarteko erakundeen ekarpenek, zer eragin izan dute hezkuntza arloko profesionalen lanean, zuzenean edo zeharka.
- Ezagutzen al ditu beste hezkuntza sistemak? Erreferenteak al dira bere lanean eta bere garapen profesionalerako?

Bakarkako hausnarketa eta taldearen ekarpena kontutan izanik zera egingo da

- Profesionalek bere irakaskuntza-ibilbidean ezagutu dituzten legedi ezberdinak sailkatu
- Nazioarteko erakundeen ekarpenak identifikatu.
- Beste hezkuntza sistemen ekarpenak aurkitzen saiatu.

Identitatea eta lanbide garapena.

Hezitzaile profesionalen profila pertsonala eta profesionalari buruz gogoeta eta sintesi lan bat garatuko dugu, halaber beraien esperientzia eta garapen profesionalari buruz. Hona arakatuko ditugun informazio guneak:

- Hezitzaile profesionalen ezaugarriak, berdintasun eta ezberdintasunak.
- Profesioaren testuingurua. Hezkuntza esparruko beste profesionalekin dituzten harremanak.
- Beraien eguneroko zereginetan erabiltzen dituzten lanabes eta estrategiak.
- Bere ekintza profesionalaren oinarri deontologikoak.
- Etorkizuneko ekintza profesionalaren garapena; bitzita profesionalean zehar egindako eta egiteko ibilbidea.

Banaka eta taldean landuko duguna da:

- Etorkizuneko ekintza profesionalaren garapena; bitzita profesionalean zehar egindako eta egiteko ibilbidea.

Giza Eskubideak eta Gizarte Politikak

Giza Eskubideak eta Gizarte Politikak izeneko ikasgaiak gizartearen esku-hartze arloan ematen den giza eskubideen garapenari buruzko jakin-mina elikatu nahi du. Honako prozedura eta gai hauei kasu egingo zaie:

- Gizartearen esku-hartze arloan ematen den giza eskubideen garapenari (ikuspegi diakronikoa)
- Ongintzatik gizarte laguntzarako edota sorospenerako bilakaera eta ongizatearen estatu garaikideak (ikuspegi sinkronikoa)
- Aipatu ongizatearen estatu garaikidearen krisialdiak eta ondoriozko heziketa paradigmen birmoldaketa (ikuspegi prospektiboa)

Taldean analitikoki landuak eta banakako sintesian aurkeztuak honako ardatzen baitan:

- Datu bilketatik ondorioztatutako informazio esanguratsuak hurrenkeraren arabera zehazturik.
- Gaitasun teknikorako balekoak diren ekarpenen ebaluazioari bidea emanez.

Pedagogia: Teoria eta hezkuntza erakundeak

Gure ikasgaien murgilduta, DILAN-ari egingo diogun ekarpena, hezkuntzaren teoriaren kontzeptuak argitzea izango da jardun hezitzailean. Gainera, heziketaren esparru formal, ez-formal eta informalak mugatuko ditugu eta testuinguruan agertu eta nagusitzen diren lanbidearen ildo teoriko-hezitzaileak aztertu. Aztertuko ditugu:

- Hezitzaileak bere lana burutzeko beharrezkoak dituen oinarrizko kontzeptu teorikoak.
- Jardun hezitzailearen esparru formal, ez-formal eta informalak antzematen jabetzea.
- Behatu eta aztertzen ari garen jarduna zein ikuspegi teorikotan koka edo sailka dezakegun hausnartu.

Banaka eta taldean landuko duguna da:

- Egileen teoria eta definizioak, hauen ulermena, analisia eta adierazpenean sakonduz.

- Gure eguneroko zereginetan, esparru hezitzaileen mugaketa finkatu, ondoren jardun hezitzailean antzemateko.

Komunikazioa eta hezkuntza erlazioa

Gure ikasgaitik modu honetara elikatuko dugu DILAN-a: gaur egun bizi garen testuinguruan hezitzaile batek behar dituen komunikazio –eta harreman-trebetasunen inguruan laburpen eta gogoeta lan bat egin beharko dute ikasleek. Ondoko informazio ildoak aztertuko ditugu geure ikasgaiaren begiradapetik egingo ditugun galderen bidez::

- Pertsonekin (ikasleekin, hezigaiekin, lankideekin, erabiltzaileekin...) egin behar duen lanari ekiteko hezitzaileak behar dituen komunikazio alderdi esanguratsuak
- Komunikazio positiboa nahiz harreman egokia bideratzen laguntzen dioten estrategien zein tresnen azterketa.
- Harreman eta komunikazio-trebetasunak laburtzea eta ordenatzea. Lan eremu askotarikoen artean erkatzea (gizarte hezkuntza eta pedagogia).

Banakako gogoeta. Talde-azterketa.

- Testu batean honako hau ordenatu beharko dute: hezitzaileen oinarrizko harreman eta komunikazio-trebetasunak, baita profesional horiek ematen dieten balioa ikasleek erabili dituzten informazio-iturriak aintzat hartuz. Horrekin guztiarekin txosten bat osatuko dugu DILAN-aren txosten orokorrari ekarpena egiteko (DILAN dokumentua).

DILAN-A BURUTZEKO PROZEDURA

ASTEA	IKASGELAN	LAN EZ-PRESENTZIALA	EMAITZA
1	a: Taldeak antolatu DILAN taldeak klaseko lehenengo astean antolatuko dira eta berdinak izango dira ikasgai guztietan. Taldekide kopurua: 4-5		Taldeak izendatzea
2	DILAN-aren aurkezpen orokorra urtarrilaren 31n (32) eta otsailaren 1ean (31)		Tutoreak izendatzea
3	b: DILAN-ri hasiera eman ikasgai bakoitzean.		
6	c: Elkarrizketarako gidoia sortu. Galdekizunaren item multzoak, bere baitan bilduko ditu ikasgai guztiei dagozkien galderak modu aski eta orekatuan, bakoitzetik sortutako galderak erantzuteko..	- Gidoirako galdegaiak bakarka prestatu - Galderak antolatu eta gidoia eraiki, hurrenkera finkatuaz. - Froga bat egin ikaskideren batekin, galderen ulergarritasuna finkatzeko..	Elkarrizketa burutu ahal izateko gidoia prest
9/10		1. Elkarrizketa burutu. Alderdi esanguratsuenak bildu eta eskolan komunikatzeko landu.. 2. Transkribaketa burutu, elkarrizketan bildutako oharrak garbira pasa. 3. Alderdi esanguratsuak identifikatu eta komunikatzeko prestatu.	Grabaketa, oharrak, e.a.
12	d: Analisia talde handian. Ikasgai bakoitzeko saio bat erabiliko dugu. Lantaldeek eskuratutako informazioa konpartitzea da helburua, galderak argitzea eta informazioa nola aztertu lantzea	Transkribaketa burutu, elkarrizketan bildutako oharrak garbira pasa	Grabaketaren edo/eta oharren transkribaketa egitea
13/14		Informazioaren gaineko analisia burutu eta ondorioak idatzi	Tutoreari lan idatzia entregatu, behin-behineko alea 14. astean.
15	DILAN-aren galdera eragiletik eratorritako erantzunaren ondorioak aurkeztu eskolan	Gainerako aurkezpenen balorazioa egin klasean	Idatzizko hausnarketa azken txostenean txertatu.
16*			Behin betiko entrega
Orduak guztira:	7,5 ord. Ikasgaiko. 37,5 ord DILAN guztira	15 ord. Ikasgaiko. 75 ord. DILAN guztira	22,5 ord. = 0,9 kreditu 112,5 = 4,5 kreditu
Balorazioa	DILANean talde-lanean lortutako nota, ikasgai bakoitzaren notaren 1.5eko balioa du. Honen puntu 1 txostenari dagokio eta 0.5 puntu aurkezpenari.		

EGUTEGIA

Itzalarekin azpimarratuta dauden egunak erabiliko ditu ikasgai bakoitzak DILAN-a lantzeko

ASTEA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1	Urtarrilak 22	23	24	25	26
2	Urtarrilak 29	30	31	1	2
3	Otsailak 5	6	7	8	9
4	JAIEGUNA	JAIEGUNA	14	15	16
5	Otsailak 19	20	21	22	23
6	Otsailak 26	27	28	29	Martxoak 1
7	Martxoak 4	5	6	7	8
8	Martxoak 11	12	13	14	15
9	Martxoak 18	19	20	21	22
10	Martxoak 25	26	27	JAIEGUNA	JAIEGUNA
	JAIEGUNA	DOZENTZIARIK EZ	DOZENTZIARIK EZ	DOZENTZIARIK EZ	DOZENTZIARIK EZ
11	Apirilak 8	9	10	11	12
12	Apirilak 15	16	17	18	19
13	Apirilak 22	23	24	25	26
14	Apirilak 29	30	JAIEGUNA	2	3
15	Maiatzak 6	7	8	9	10
16*	BEHIN BETIKO DILAN TXOSTENAREN ENTREGA				

TXOSTENAREN EGITURA

Behin-betiko DILAN txostenak, lau atal izango ditu (azala, aurkibidea, lana bera eta eranskinak) eta ondoren agertzen diren aurkezpen-arauak errespetatu behar ditu.:

a- Azala. Bertan idatzita agertu behar dute:

- Lanaren izenburua.
- Egileen izen-abizenak.
- Tutorearen izen-abizenak.
- Data.
- Gradua.
- Moduluaren zenbakia: II Modulua.

b.- Aurkibidea. Agertu behar dute:

- Sarrera.
- Elkarrizketatutakoen aurkezpena.
- Galdekizunaren eratze prozesua eta moduluko ikasgaiei egiten dien ekarpena.
- Elkarrizketaren galdekizuna.
- Elkarrizketaren analisia eta hausnarketa (kategoriak)
- Ondorio orokorrak.
- Egindako lanaren taldeko eta bakarkako balorazioak.
- Erabilitako erreferentziak (bibliografia, Internet,...).
- Eranskinak.

c.- Lana bera: aurkibidean agertzen den hurrenkerari jarraituz. Lana zenbakitu egin behar eta aurkibidean aipatu.

d.- Eranskinak.

e.- Aurkezpen arauak:

- Tarteak: 2.5 guztian: goi, behe, ezker, eskuin
- 30.000 karaktere kopurua gutxi-gora-behera.

MODULUAREN JARDUERA DIZIPLINARTEKOAREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Gaiarekiko egokitasuna: txostenaren edukiak aipatutako gaia era koherente eta osatuan landu behar du, soberakinik gabe. Era berean, haserako galderari erantzun behar dio.
2. Informazioaren antolakuntza: informazioak ongi taxutua egon behar du (dokumentuan azaltzen den estrukturari jarraituz). Taulak eta grafikoak ongi eratu, zenbatu eta titulatuak egon behar dute. Informazioa, lortutako datuak, erraz bilatu beharko dira.
3. Ondorioen integrazioa eta justifikazioa. Ondorioek arazoaren ikuspuntu orokorra azaldu behar dute eta emandako datuetan oinarrituta egon behar dute. Ondorioen oinarritzko argudioek argiak eta koherenteak izan behar dute.
4. Idatziaren adierazpena eta zuzentasuna unibertsitatean eskatzen den mailari erantzun behar dio, bai idatzizko azalpenetako arlo formalari dagokionez, bai ortografia, aipuak, erreferentzi bibliografikoak...), bai kohesioa eta koherentziari dagokionez.
5. Lanaren ahozko aurkezpena prozesuaren atal garrantzitsua da (erregistro egokia, taldearekiko egokitzapena, taldekide guztien parte-hartzea, irakasleen edo ikaskideen galderei erantzun egokia ematea, aurkezpen denbora errespetatzea...)
6. Autoebaluazioa. Autoebaluazioan ikaskuntza prozesuari buruz, haren barneratzeaz eta hobekuntzarako ateratako ondorioei buruz egindako hausnarketan kalitatea balioztatuko da.

Azken ebaluazioak ikasgai bakoitzari dagokion atalaren oniritzia izan behar du.

ERANSKINA

Egoera hauek hartuko dira kontutan

MATRIKULATUTAK O IRAKASGAIK	EBALUAZIO JARRAIKO IRAKASGAIK	EBALUAZIO JARRAIKO IRAKASGAIK	EZ	DILAN a BAI/EZ
5	5	0		BAI
5	4	1		BAI
5	3	2		BAI
5	2	3		EZ
5	1	4		EZ
5	0	5		EZ
4	4	0		BAI
4	3	1		BAI
4	2	2		BAI
4	1	3		EZ
4	0	4		EZ
3	3	0		BAI
3	2	1		BAI
3	1	2		BAI
3	0	3		EZ
2	2	0		EZ
2	1	1		EZ
2	0	2		EZ
1	1	0		EZ
1	0	1		EZ

Dokumentu honen egileak: Pedagogia eta Gizarte Hezkuntzako II. Moduluko irakasleak diren, Esti Amenabarro, Amaia Agirre, Ana Eizagirre, Aingeru Gutierrez-Cabello, Goretti Orbea Pedagogia eta Gizarte Hezkuntza graduetakoko koordinatzaileak diren Joxi Imaz eta Itziar Rekalde (2024-2025 ikasturtea).